

LAN OSASUN ETA SEGURTASUN POLITIKA

CIKAUTXO, jardura nagusizat kautxu eta plastikozko pieza teknikoan diseinua eta ekoizpena duena; eta CIKATEK, enpresaren Ikerketa, Garapena eta Berrikuntza unitate gisa, enpresaren kudeaketa alor ezberdinetan garatzen duten etengabeko hobekuntza dinamikaren barruan, Lan Osasun eta Segurtasuna eta Ondasun Arriskuak landu beharreko esparru estrategiko bat dela ulertzen dute, gure erakundearen kudeaketan integratuta dagoena.

Enpresaren Zuzendaritzak asmo hau bere egiten du eta hori gauzatzera konprometitzen da. Beraz, lanean segurtasun eta osasun maila altu bat lortzeko, eta ondasun arriskuen prebentzioa bermatzeko, beharrezko antolaketa, langileak eta bestelako baliabide materialak halbidetzea bere eginkizuna dela ulertzen du.

Horretarako, Lan Osasun eta Segurtasuna eta Ondasun Arriskuen Kudeaketa Sistema bat ezartzen du, helburutzat legediaren eta erakundearen aplikagarriak diren barne arauen betetzea duena. Halaber, Sistemak erakunde guztira hedatzen diren helburu eta xedeen aldizkako definizioa, beti eguneratuta dauden arriskuen identifikazioa eta ebaluaketa, eta arlo honetan aplikagarriak diren lege eta araudi baldintzak betetzea eta lanarekin zerikusia duten kalteen eta osasunaren narriaduraren prebentzioa bermatu beharko du, arriskuak ezabatuz eta laneko segurtasun eta osasunaren arriskuak murriztuz

Lan Osasun eta Segurtasuna eta Ondasun Arriskuen kudeaketa, ekintza prebentiboaren etengabeko hobekuntza printzipioan oinarritzen dena, Zuzendaritzaren erantzukizuna da, eta horretarako bere gauzatea bultzatu beharko du, enpresako agintearen bidez. Agintari hauek langunean Lan Osasun eta Segurtasuna kudeatzearen arduradunak dira lidergo eta sinesgarritasunarekin, langile eta beraien ordezkariak kontsultatuz bere segurtasun eta osasunarekin zerikusia duten gaitan.

Hala ere, kolektibo guztia izango da azken finean Lan Osasun eta Segurtasuna eta Ondasun Arriskuen kudeaketa behar bezala egitearen subjektu; enpresako langile guztiak dira zehaztutako prozedurak betetzen direla bermatzearen eta beraien hobekuntzaren arduradun, ekintza prebentiboetan parte hartuz, atzemandako arriskuak identifikatuz eta iradokizunak eginez. Horretarako, Zuzendaritzak kolektiboaren heziketa eta informazio egokia bermatuko du.

Era berean, Lan Osasun eta Segurtasun eta Ondare-Arriskuen Sistemaren kudeaketa etengabe ezarri eta hobetzeak, kontratistekiko eta interesa duten beste alderdi batzuekiko komunikazioan ere zentratzen da, enpresara sartzen den kanpoko langile guztiek beharrezko prestakuntza eta informazioa izan eta segurtasunez lan egiteko prest daudela ziurtatuz.

Politika honen betetzea bermatzeko xedez, betetze hori eta Sistema arriskuen mota eta hedaturara moldatzen dela egiaztatzen duten ikuskatze sistematikoak ezartzen dira, aldi berean sistema beraren hobekuntza eta eguneratzea ahalbidetuz.



Iñigo Laskurain Pagaegi
Zuzendari nagusia

Berriatuan, 2019ko Maiatzaren 17an